



EUSKARAREN
SAREA

BIDASOA-TXINGUDI BORTZIRIAK HEGO LAPURDI



mintzodromoa

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIA MENTXU PEÑA LIZARAZU

Mintzodromoa zer den eta zer helburu dituen azaltzea (2')

Mintzodromoa lasai aski euskaraz aritzeko tokia da. Euskaldun guztientzako tokia da, euskara ikasten ari direnentzako, hiztun berrientzako, praktikatzeko aukera gutti dutenentzako, nekez aritzen direnentzako, euskara euren egunerokoan bizi eta eroso ibiltzen dutenentzako. Guztientzako tokia. Hiztunek ezaugarri ezberdinak izanagatik euskaraz bizitzea posible dela erakusten duen tokia da mintzodromoa.

Ekimenaren helburua da euskaraz solasteko aukera bat gehiago eskaintzea euskara ikasten ari direnei, euskara praktika dezaten, lotsa gal dezaten eta erabilerarako jauzia egin dezaten. Baina era berean euskaldunen arteko harremanak sortu eta sendotzea ere bada helburua. Izan ere, Mintzodromoan parte hartu ondotik, bertan egindako lagun berriekin euskaraz aritzeko ohitura sortzen ahal da. Baita euskaldun zahar eta berrien arteko igurtziak areagotzeko ere.

Mintzodromoaren dinamika labur azaltzea (2')

Bertaratutakoak, hainbat gairen inguruan mintzatuko dira mahai baten bueltan lauko taldetxoetan eta giro xamur eta lagunartekoan. Hiru gai ezberdin proposatuko dira 15 minutuz mintzagai gisa eta solasaldi bakoitza, lagun talde ezberdinarekin egingen dute. Dinamizazioaz Panpi Mercapide *Gure Irratiko* esataria arduratuko da. Aurtengoa ospakizun urtea du Lapurdiko euskarazko irratia, 35 urte betetzen baititu. Eta euskal kulturako pertsonaia ezagunek parte hartuko dute: Kalakan musika taldeak, Peio Ospital kantariak eta Maialen Arzallus bertsolariak bertzeak bertze. Hortaz, haiekin solasean aritzeko eta haiek ezagutzeko aukera izanen dute bertaratzen direnek. Giroa eta parte-hartzea bultzatzeko, hamaiketako goxoa izanen da. Beraz, goiza euskaraz eta giro onean pasatzeko aukera ezinhobea izanen da.